

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ingurumeneko Departamentuak Nafarroa guztiko ekitaldi jasangarrietarako baxera berrerabilgarriak aurkeztu ditu Leitzan, 2018ko ekainaren 23an, larunbatarekin

13.000 bazkaltiarrek baino gehiagok erabiliko dituzte, irailera arte programaturik dauden 28 ekitaldi baino gehiagotan

Larunbata, 2018.eko ekainak 23

Larunbat honetan, ekainak 23, Leitzako San Juanetako festetako herri afarian aurkeztuko da jendaurrean Hondakinen Prebentziorako Bulegoak Nafarroako herritar ororen eskura uzten duen baxera berrerabilgarria, ekitaldi jasangarriak egin ahal izateko eta festa eta ospakizunetan hondakinen sorrera prebenitu ahal izateko. Leitzako San Juanetako baxera erabilgarridun herri afaria 1.100 bazkaltiarrendako prest egonen da.



Elizalde kontseilaria, erdian, baxera berrerabilgarriaren aurkezpenean.

Ekimena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuko Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoak eta Hondakinen Partzuergoak sustatu dute, GAN-NIKen laguntzarekin, eta xedea du praktikan jartzea Hondakinei buruzko Foru Lege onetsi berriaren printzipioak, hots, hondakinen prebentzioa eta murrizketa, legeak debekatuko baitu 2020tik aitzina erabili eta botatzeko baxerak erabiltzea.

Horrela, Prebentziorako Bulegoak talde, elkarte, udal edo kontzejuen esku uzten du berrerabilgarria den baxera kit oso bat, hemendik aitzina festa eta ospakizunak iraunkorrako izan daitezen eta hondakinen sorrera ahal bezain beste txikiagotzeko.

Baxera sortak honakoak ditu: plater sakona, plater zapala, entsalada-ontzia, azpil sakona, altzairu herdoilgaitzezko mahai-tresnak (koilara, koilaratxoa, sardexka, labana), edalontzia, kafea hartzeko edalontzia eta urarendako pitxerrak.

Baxera berrerabilgarriaren kanpainaren aurkezpena Leitzako Udalean egingen da, 19:30ean, eta bertan izanen dira Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilari Isabel Elizalde,

Mendialdeko Zerbitzuen Mankomunitateko buru Unai Loiarde, Leitzako alkate Mikel Zabaleta, Nafarroako Hondakinen Partzuergoko kudeatzaile Iñaki Urrizalki eta, horiekin batera, hainbat talde, hondakinen prebentzioarekin jasangarritasun praktika arduratsuak izateko konpromisoa adierazten duten hainbat belaunalditako lagunak.

Varazdin Fundazioa arduratuko da baxera kudeatu eta hornitze lanez, eta, horrekin batera, jaso, higienizatu eta garbitzeaz. Varazdin irabazi asmorik gabeko lan eta gizarteratze zentro bat da, Nafarroako Gobernuaren aitorpena duena 2.000 urteaz geroztik. Gaur egun, Varazdineko plantilla bestelakotasun funtzionala duten eta gizarte bazterketako arrisku egoeran dauden 70 pertsonen osatzen dute.

Festa jasangarriak ekainetik irailera

Prebentzio bulegoak jada jaso ditu baxera berrerabilgarriendako eskaerak Nafarroako hainbat herrigunetatik, eta jada itxiak dauden akordioek adierazten dute osotara 13.000 bazkaltiarrek parte hartuko dutela 2018ko ekaina eta iraila bitartean egingen diren 28 ekitaldi jasangarrietan.

Zehazki, asteburu honetan baxera berrerabilgarriak erabiliko dira Lekunberrin (200 lagun), Obanosko San Juanetan, Garesko Arrieta abesbatzaren urteroko ospakizunean eta piraguismoaren Gares sarian, Berbintzanako euskararen festan eta Lesakako Tantirumairu ikastolako festan. Ondoko asteburuan, San Pedrotan, Betelun (Araxesgoieneko Mankomunitatea), Murchanteko gazteriaren festan (Erriberako Mankomunitatea) eta Orbaizetako festetan (Bidausi).

Baxera uztailean ondoko festetan erabiliko da: Elizondo eta Baztandarren Biltzarra; Arribe eta Uztegi (Araxesgoiena); Petilla Aragoi (Zangozako Mankomunitatea); eta Doneztebe eta Ituren (Malerrekako Mankomunitatea).

Abuztuan, baxera erabiliko da Artzibarko eta Urrozko festetan (Iratiko Mankomunitatea), Bera eta Etxalarren (Bortzirietako Mankomunitatea), Aurizberrin (Bidausi) eta Ribaforadako motozaleen kontzentrazio batean (Erriberako Mankomunitatea) eta Berbintzanan (Izarbeibar).

Azkenik, irailean programaturik dago erabiliko direla Obanosko festetako kaldereteetan (Izarbeibar); Urrozko festetan (Malerreka), Zangozako Auroroen kontzentrazioan eta Altsasuko festetan. Programazio ixteko, urrian Altsasun (Sakana) egingen den Nafarroa Oinez festan ere erabiliko dira.

Uztail-abuztueterako baxera jasangarrien kupoa betea dago; irailerako, interesa duten pertsona eta kolektiboek eskaera egin dezakete Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoaren <https://oprec-navarra.com/> webgunearen bidez, galde-sorta erraz bati erantzunez. Materiala doan uzten da eta garraioa, garbiketa eta galdu edo hondaturiko tresnak talde eskatzailearen konturakoak dira.